

**Ituren** eta **Zubietako** Inauterietan agertzen dira **Joaldunak**. Urtarrileko azken asteko edo otsaileko lehenengo asteko astelehen eta asteartean ospatzen dituzte Inauteriak, bi herrietakoak ados jarrita, aukeratzen duten egunean.

Joaldunak, gaur egun, bi herri hauetako neska-mutil taldeak dira; euren ezaugarri nagusia da gerrian zintzarri handi pare lotuta eramatea. Zintzarria da Inauteri hauetako elementu nagusia. Joaldunak, gerria astinduz, izugarrizko hotsa ateratzen diete zintzarrioi. Binaka joaten dira, ilara banatan, Joaldunak.

Astelehen eguerdian Zubietako Joaldunak joaten dira Itureneraino, hogeitahi, hogeitahi hamar edo gehiago ere, beren dantzarekin zintzarrotsa sortzen.

Asteartean Iturengoak joaten dira Zubietara. Bide erdian egoten zaizkie zain Zubietakoak, eta, honela, elkarrekin egiten dute hortik aurrerako bidea. Bide hau egiten ere, etengabe entzuten da zintzarrotsa. Bidean, beste lagun batzuk elkartzen zaizkie: **Karroxak, Mozorrorik sinesgaitzenak, Sorginak, Ijitoak...** Ordu biak bueltan heltzen dira Joaldunak Zubietara eta hango kaleak eta enparantza korritzen dituzte, beren dantzan kontzentraturik, serio-serio.

Aitzina, bizpahiru egun irauten zuen festak. Garai hartan, ahuspez egiten zuten lo eta ezin izaten zuten salda baino hartu, hain izaten zituzten estu zintzarriak gerrian. Oihal beltz batez estaltzen zuten aurpegia.

Ituren eta Zubietako Joaldunen janzkera desberdina da. Iturengoek ardi-larru doblea eta painelu gorriak daramatzate soinean; Zubietakoek, ordea, ardi-larru bakarra eta zapi urdina. Guztiek eramaten dute isipua eskuineko eskuan eta kapela dotorea buruan. Txano honi "Ttuntturroa" esaten zaio; horregatik dute joaldunek **"Ttuntturroak"** izena. Zintzarriek "joare" dute izena; horregatik dira **Joaldunak** tresna horiek astintzen dituztenak. Badago beste era bat ere talde hauek izendatzeko: **Zanpantzarrak**.